Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

397

EBAZPENA, 2011ko urtarrilaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Zerbitzu zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan izapidetuko den 1494/10-2 prozedura arruntean interesatu izan daitezkeenei epea jartzen diena.

2010eko uztailaren 30ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren Agindua, uztailaren 21ekoa, babes ofizialeko hainbat etxebizitza azalera-eskubidean eraikita dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jabetzako lurzorua erosteko eskakizunak ezartzen dituena. Andoni Ortega García jaunak eta beste batzuek auzi-errekurtsoa jarri dute Aginduaren aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan (prozedura arrunta 1494/10-2).

2010eko abenduaren 20ko antolaketa-eginbidez, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari aurkatutako administrazio-jardunari buruzko espedientea igortzeko eskatu zaio, baita interesatu izan daitezkeenei epea jartzeko ere.

Horrela bada, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin ados,

EBATZI DUT:

1.– Aipatutako 1494/10-2 prozedura arruntean interesdun izan daitezkeenei epea jartzea, egoki baderitzote, bederatzi eguneko epearen barruan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan aurkez daitezen.

2.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dezaten agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 12a.

Zerbitzu zuzendaria,
PALOMA USATORRE MINGO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

397

RESOLUCIÓN de 12 de enero de 2011, de la Directora de Servicios del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se emplaza a los posibles interesados en el procedimiento ordinario n.º 1494/10-2 que se sigue ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

D. Andoni Ortega García y otros han interpuesto ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el recurso contencioso-administrativo Procedimiento ordinario n.º 1494/10-2 contra la Orden de 21 de julio de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 30 de julio de 2010, por la que se establecen los requisitos para la adquisición del suelo propiedad de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi sobre el que se encuentran edificadas en derecho de superficie determinadas viviendas de protección oficial.

Mediante diligencia de ordenación de 20 de diciembre de 2010 se ha requerido al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes la remisión del expediente administrativo correspondiente a la actuación administrativa impugnada y el emplazamiento a cuantos aparezcan como interesados en él.

Así pues, en cumplimiento de lo previsto en el artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa,

RESUELVO:

1.– Emplazar a las personas interesadas para que, si lo consideran oportuno, puedan comparecer en el plazo de nueve días ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y personarse en el procedimiento ordinario n.º 1494/10-2.

2.– Ordenar la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de enero de 2011.

La Directora de Servicios,
PALOMA USATORRE MINGO.